

# hitzen uberan

## ERABILTZAILEA

User Name

Password

Remember Me 

Log in

- [Forgot your password?](#)
- [Forgot your username?](#)
- [Create an account](#)



Euskal Idazleen Elkarteak  
eskaintako webgunea

## AGENDA

'Amaren eskuak'  
liburuan oinarritutako  
argazki erakusketa  
Zarautzen  
Erakusketak



2011/09/23 | Zarautz,  
19:00etan

'Jaiotze markak' liburuaz  
Markina-Xemeinen  
Irakurle taldeak eta klubak  
Erakusketak



2011/10/27 | Markina-  
Xemein

'Fikzioaren izterrak'  
liburuaz Marritzen  
Irakurle taldeak eta klubak  
Erakusketak



2011/10/29 | Marritze,  
14:30etik 16:00etara

'Gerezi garaiko haikuak',  
poesia eta pintura  
Senperen  
Erakusketak



2011/10/22 | Senpere

'Jaiotze markak' liburuaz  
Durangon  
Irakurle taldeak eta klubak  
Erakusketak



2011/11/02 | Durango,  
19:30ean

'Fikzioaren izterrak'  
liburuaz Igorren  
Irakurle taldeak eta klubak  
Erakusketak



2011/11/07 | Igorre,  
19:00etan

[Agenda osoa ikusi](#)

Sarrera | [Kaia](#) | [Liburu-aurrezpenak](#) | [Idazten ikasi nahi duenarentzat](#)

## Idazten

'NARRAZIO TAILERRA' LIBURUA ARGITARATU DU MIKEL HERNANDEZ ABAITUAK

Osteguna, 2011/10/27 | [Liburu-aurrezpenak](#)



**Mikel Hernandez Abaitua** Batxilergoko irakaslea da, Donostiako Usandizaga institutuan. Duela urte batzuk, Gipuzkoako Hezkuntza Sailetik proposamen bat jaso zuen. Ia prestatuko zuen narrazio tailer telematikoa. Internetez, on line emateko modukoa. Irakaslea izateaz gain idazlea ere bazela, informatika ezagupenak zituela eta ia animatuko zen. Hori izan zen *Narrazio tailerra* (*Erein*, 2011) liburuaren abiapuntua. Egilearen beraren esanetan, "literatura ikasteko, idazten ikasteko eta beste narrazio batzuk ikasteko balio dezake".

Hezkuntza Sailaren enkargua bideratzea ez zen lan erraza izan. Liburuaren aurrezpenak **Mikel Hernandez Abaituak** adierazi zuenez, "ez dago materialik euskaraz. Beraz, testu liburu bat idatzi behar izan nuen ikasgai hau eman ahal izateko. Neuk proposatu nuen asgnaturaren programazio guztia".

### Gida praktikoa

Zentzu horretan, idazle izatea lagungarri egin zitzaion Hernandez Abaituari: "kontuan izan nuen nik nola ikasi nuen ipuinak idazten, zer interesatzen zitzaidan. Beste idazleen lanak irakurtzeaz gain, zein teoria irakurtzen nituen...".



Tailer honen bidez, istorio laburrak, komikiak, nobela grafikoak zein eleberrri on bat osatzeko baliabideak eman izan dizkie ikasleei. Hori guztia liburu praktikoa batean jaso du Mikel Hernandez Abaituak. Gazteek ez ezik, helduek ere ederki asko baliatu dezakete *Narrazio tailerra* liburu (*Erein*, 2011). Literatura idazten ikasteko, literaturaren beraren mekanika ulertzeko edota bestelako narrazio mota batzuk egiteko.

### Gazte zein helduentzat egokia

Erabilgarria. Praktikoak. Liburu definitzeko hitz egokiak dira hauek. Eta hasiera batean, 16-18 urteko ikasleentzat burutu bazuen ere, egileak uste du aprobetxagarria izango dela baita helduagoak direnentzat ere. Mikel Hernandez Abaituaren ustez, "seguru nago jende helduagoak liburu hau hartuko duela eta esango duela *jontxo*, *azkenean badut gidoi bat*; *ipuin bat idazteko garaian*, *badaukat nola gauzatu nahi dudan ideia hori*. Eta horixe da, azken batean".

## ERAKUSLEIHOA



**Hedoi Etxarte**ren *Suzko Iilia* (Susa, 2008) liburuan oinarritutako emanaldiaren grabaketa ikusteko proposamena egin berri du Argiak, **HEMEN** topatuko duzue. Irudietan: ahotsa eta teklatura Andoni Arcillak, bateria Hasier Oleagak, kontrabaxua eta baxu elektrikoa David Ruizek eta predikadorea Hedoi Etxarte.

## ELKARRIZKETA


Martin Etxeberriari  
elkarrizketa



'Zakurraren poema eta beste hezur batzuk' liburuaz argitaratu du

## ERREPORTAJEA

Agosti Xaho oroituz



Urriaren 4an eta 5ean, hainbat ekitaldi egingo dira Donostian

## ARRANTZATUAK

Sarrionandiaren (literaturaren) alde  
2011/10/23 | Argia

Fernando Morillo da Nekatoeneako

### "Metodoak funtzionatzen du"


Literatura tailerrak eta irakurle klubak gero eta gehiago dira. Eta horren jakitun, Mikel Hernandez Abaituak material hau jami du jendearen esku. "Metodoa eta liburua testatuta dago, ikusi dut funtzionatzen duela". Hainbat urtez ikasgai izan delako liburu honen mamia.

"Baina interesgarriena da idazle baten ikuspegitik ere testaturik dagoela. Tesi bat dago liburu honetan, narratologian aditua den idazle baten tesia", **Iñaki Aldekoa** Erein argitaletzeko arduradunaren hitzak dira hauek.

Dagoeneko ohiko saltokietan eskura daitezke hizpide dugun liburu hau. *Narrazio tailerra* poltsikoko edizioan argitaratu du Ereinek, 8 eurotan baino ez.

Pasa den astean eskaini zuen prentsaurrekoko adierazpenak dira ondoko bideotan ikus-entzun ditzakezuenak.

## Argazkiak



## Bideoak



Iruzkina (0)

### Iruzkina idatzi

Bisitari gisa ari zara idazten.

Izena\*

E-posta\*

Webgunea

Iruzkina bidali

lehen euskal idazlea

2011/10/19 | Berria

Txinako bizipenen berri eman du Rafa Egigurenek 'Gauza guztiak' lanean

2011/10/19 | Berria

Durangoko Azokak aurkezpenak egiteko deialdia zabaldu du

2011/10/17 | Zuzeu

Jose Arizimuño «Aitzol» olerkaria ezagutarazteko ekimen ugari, bere heriotzaren 75. urtemugan

2011/10/17 | Gara

Askotariko fauna poetikoa

2011/10/14 | Nontzeberri

## AMUAK

Heiner Müllerren ahotsa lau poematan



Leonard Cohen (I): euskarazko arrastoak



Leonard Cohen (II): 'Abestien dorreko printzea'



## HARREMANETARAKO

Oier Guillan & Imanol Ubeda  
[hitzenuberan@gmail.com](mailto:hitzenuberan@gmail.com)

## TXIOAK

**hitzenuberan** Sei poema berreskuratu dira "Kartzelako Poemak" liburuaren edizio berirako. Azaroaren 10ean aurkeztuko da Dokan. <http://t.co/YSLisWOk>

**hitzenuberan** Juan Ramón Makuso eta Aitor Ruiz de Egino dira gaurko azalera osatzen lagundu duguten artistak. Hitzen Uberan ikusgai: <http://t.co/cFdItlco>

**hitzenuberan** Azaroaren 10ean aurkeztuko da Joseba

## LAGUNTZAILEAK



Web2PDF

converted by Web2PDFConvert.com

Samionandiaren "Kartzelako Poemak" liburuaren edizio gaurkotua, Donostiako Dokan <http://t.co/YSLisWOk>



Edukiak [CC-by-sa](#) lizentziapean argitaratu dira. [XHTML 1.0](#) eta [CSS 3](#) balioetsak | [Estatistikak](#)

